

BILBIDEA: LEGORRETA ~ SANTA MARINA ~ BEASAIN.

2007KO, EKAINAREN 10EAN
IRTEERA BETAN. "TRENEX"



Handwritten signature

**IBILBIDEA: LEGORRETA, SANTA MARINA, BEASAIN
2007KO EKAINAREN 10EAN**

Goizeko 8etan irtengo gara Beasaindik, trenez, eta Legorretaraino joango gara.

Ibilbide hau trenbideko geltokian bertan hasiko dugu. Legorretako herria zeharkatu eta lehengo N-1 errepide zaharra Izarra jatetxearen parean gurutzatuko dugu Itsasondorantz jarraitzeko. Metro gutxitara, zementuzko pista hartuko dugu eskuinalderantz eta biragune batean dagoen baserri bateraino iritsiko gara. Han zementuzko bidea amaitu egiten da baina pistak jarraitu egiten du. Igotzen jarraituko dugu Burnikurutzera iritsi arte. Hura antzinako mugarri bitxia da eta bidearen ezker aldean gelditzen da. Metro batzuk aurrerago, Argisaingo Santa Marinara doan errepidearekin topo egingo dugu. Errepidean zehar ezker aldeara jarraituko dugu eta Albizturko Santa Marina auzo politera iritsiko gara.

Murumendi ikusiko dugu aurrez aurre eta harantz joko dugu. Horretarako pista bat hartuko dugu Mendebalderantz (M) eta Larrañagagoikoa baserrira iristean, bere atzeko aldetik jarraitu eta gorantz egingo dugu bidezidor estuan zehar argindarraren paldoei jarraituz. Bidezidor hori laster pista bihurtzen da eta ondoren baserri baten parera iristean, ezker aldeantz egingo dugu gorantz jarraitu eta pista nagusiago batean sartzeko. Pista hori Santa Agedatik dator eta Murumendirantz doa. Bera ezker aldeantz jarraituz, Murumendiren oinera iritsiko gara. Pista utzi eta aurrez aurre igoko gara gorantz pagadian zehar malda gogorrean eta gailurreraino iritsiko gara.

Halere ez da beharrezkoa gailurreraino iristea, izan ere, eskuinaldetik inguratzen duen bidea ere jarraitu liteke eta Arrapaizko iturriaren ondotik igaroz, pistan jarraitu bidez bide Agortaraino eta handik Beasaina jaitsi, errepidetik edota dauden bidezidorretako edozeinetatik.

Ibilaldia egiteko gutxi gorabeherako denbora: 5 ordu.